

LAN BATZORDE IREKIAK

TALDEA	ONGIZATE BATZORDEA		
IRAUPENA	2 ORDU	EGUNA	2016-03-08
GAIA		DEIALDIA	Ongizate BATZORDEA

PARTE HARTZAILEAK

Iñaki Etxezarreta	Iñaki Sarriegi	Arantxa Bidegain	Iñigo Igarzabal
Javier Garcia	Endika Igarzabal		

ERABAKIAK

GAIA	EKINTZAK	ARDURADURA	NOIZKO
SASIETA	<ul style="list-style-type: none"> • Oraindik ez daukagu daturik hobekuntzarik izan den edo ez ikusteko. 15 egun eskas dira martxan jarri zenetik, eta 4-5 hilabete pasa beharko dira balorazio erreal bat egiteko. • Konposta ez daukatenekin zer egin: 1-Konposta kursilora deitu 2-Etortzen ez direnekin bildu 3-Auzokonposta planteatu 4-Hori ere nahi ez badute behartzeko neurrirenbat hartu beharko da. • Udaberria badatorrela eta, lorategiko belarrak eta podako adarrak botatzeko gune bat prestatzea beharrezkoa ikusten da. 		
GOIENER	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzaldia maiatzaren 6ean. • Gasa eta elektrizitatea daukaten kasuetan nola egiten da? Hitzaldian azalduko digute. 		
HILERRIA	<ul style="list-style-type: none"> • 11 gorputz atera dira hilerritik. Oiarbide funerariak egin du, lortutako aurrekontuetan merkeena zelako berea. Horietatik 2 gorputz erraustu dira. 		
HILETAK	<ul style="list-style-type: none"> • Hiletetako eta kanposantuko ardura ere Oiarbidek berak hartuko du. • Hiletetarako eskola atzean familiarrentzako gune bat ipiniko da. • Inguruko herrietan udalek hiletako kobratzen dutena ikusi da. Momentuz Gabirian dena udalak ordaintzen du eta 400€ kostatzen zaio (erraustea 217€). • Herrian erroldatuta ez dagoenari, tarifa osoa kobratzea erabaki da, eta erroldatuta daudenei %50a. • Asegurua dutenen aurrean nola jokatu? Osorik kobratu beharko litzateke. Nola egin? 		
AUTOBUS ZERBITZUA	<ul style="list-style-type: none"> • Inkestaren emaitzak pasa zaizkio Goiekiri. Zerbitzu zuzenen beharra azpimarratu da, Ormaiztegin beste linea bat hartu 		

	beharrrik ez izateko.		
UR ZERBITZUA	<ul style="list-style-type: none"> • 10 urtetan ur sarea mantentzeko hitzarmena proposatu digute.. Modu honetara, biztanle eta etxe bakoitzak kontsumoaren arabera ordainduko luke. Ez da garbi ikusten eta ez da onartu. 		
MEDIKUA	<ul style="list-style-type: none"> • Ordutegia luzatzeko aukera aztertzea bultzatu da komunikazio-garapen batzordetik. Ate batzuk jo dira eta ezer ez egitea ikusi da aukerarik onena, dagoen apurra galtzeko arriskua legokeela ikusten da eta 		
KOPAGOA	<ul style="list-style-type: none"> • Ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera dago. Eskaera egin beharko da urtero. 		
GURUTZE GORRIA	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzarmen bat sinatuko da. Kopuru finko bat ordainduta herriak zerbitzu hori izango luke: katastrofetan, pobrezia energetikoa duten familiei, ekintzetan anbulantziak jarritz... • Desfibrilagailua ipintzeko aukera eskaini digute. Momentuz ez jartzea erabaki da, garestia da eta ez dago formakuntzarik herri mailan horren inguruan. • Lehen sorospeneko kurso bat egitea proposatzen da. 		
HURRENGO BILERA: Maiatzak 10, 19:00tan			